



ERAKUNDE-ADIERAZPENA

Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna.

Foru Gobernu Kontseiluak, 2017ko martxoaren 8aren ospakizuna dela-eta, erakunde-adierazpen hau onartzen du:

Erakunde-adierazpena: martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna.

1977an, NBEk Emakumeen Nazioarteko Egun izendatu zuen martxoaren 8a.

Arabako Foru Aldundiak ospatu egingo du berriro ere egun hori, ikusmiran, batez ere, emakume errefuxiatuak dituela.

ACNUR-Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentziaren datuen arabera ia 64 milioi ziren 2015eko bukaeran nahitaez lekualdatutako pertsonak (errefuxiatuak, asilo eskatzaileak, estatu barruko lekualdatuak...), eta haien erdiak emakume eta adingabeak.

Gizonek eta emakumeek migrazioaren etapetan hainbat arrisku eta kalte bizi dituzte; baina, azken horiek eta neskatxoak dira, bereziki, diskriminazioaren eta sexu eta genero indarkeriaren biktimak. Horiek arreta eta babes behar zehatzak dituzte, hala nola, osasuna, pribatutasuna, higienea eta segurtasuna.

Giza eskubideen nazioarteko babes sistemak ez die era egokian erantzuten emakumeen giza eskubideei, nahiz eta badiren sei hamarkada baino gehiago Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak eta haren aurrekari izan zen Nazio Batuen Gutunak beren-beregi aipatu zutela emakume eta gizonen arteko berdintasun printzipioa.

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

8 de marzo, Día Internacional de las Mujeres

El Consejo de Gobierno Foral , con motivo de la celebración del día 8 de marzo de 2017, aprueba la siguiente Declaración Institucional:

Declaración institucional, 8 de Marzo, Día Internacional de las Mujeres.

En 1.977 la ONU declaró el 8 de marzo como Día Internacional para los Derechos de las Mujeres.

La Diputación Foral de Álava se suma una vez más a la conmemoración de este día poniendo la atención en las mujeres refugiadas.

Según los datos de ACNUR (la Agencia de Naciones Unidas para los Refugiados) la población de personas desplazadas forzosamente (personas refugiadas, solicitantes de asilo, desplazadas internas, etc.) a finales de 2015 alcanzó casi 64 millones, la mitad de estas personas, mujeres y menores.

Hombres y mujeres están expuestos a diferentes tipos de riesgo y vulnerabilidad a lo largo de las etapas de la migración, pero las mujeres y las niñas son víctimas particulares de la discriminación y la violencia sexual y de género, y tienen necesidades específicas de atención y protección, como son, la salud, privacidad, higiene y seguridad.

El sistema de protección internacional de los derechos humanos no responde de forma adecuada a los derechos humanos de las mujeres, a pesar de que hace más de seis décadas la Declaración Universal de Derechos Humanos, y su antecedente inmediato la Carta de Naciones Unidas hacen mención expresa al principio de igualdad entre mujeres y hombres.



“Errefuxiatu” hitza termino neutro jotzeak babes gabe uzten ditu emakumeak eta zaildu egiten du haien errefuxiatu izaera eta asilo eskubidea erdiestea. Funtsezkoa da izaera horri genero ikuspegia gehitzea.

Toki guztietai antzematen da ihesean doazen emakume eta haurren zaurgarritasuna: jatorrizko herrialdean, ihesaldian zeharkatzen dituztenetan eta jomuga dutenetan. Sarri, genero jazarpenean eta esplotazioan dute jatorria nahitaezko lekualdaketeak, emakumeen salerosketa sexual eta laboralean, bortxaketetan, tratu txarretan, ezkontza behartuetan, sexu organoen erauzketetan eta beste ugaritan, besteak beste.

Emakumeen eskubide urraketak ez dira gelditzen ezta errefuxiatu estatutua aitortzen zaizkienean ere. Gizarteratze erronka ugariri egin behar diote aurre eta pairatzen duten bazterkeria anitza da eta sektore askori eragiten die, besteak beste, sexuari, sexu nortasunari eta jatorri etniko minoritarioari. Horrek guztiak are arrisku handiagoen mende jartzen ditu: gizartetik at geratzeko arriskua dute, bai eta bortxakeria eta gabeziak pairatzeko arriskua ere.

Arabak pertsona horiek hartu eta babestearen alde egiten du; emakume eta neskatoen eskubideak bermatu nahi ditu eta zerbitzu publikoak haien eskueran jarri nahi ditu. Hori da gobernuaren, erakundeen eta gizarte guztiaren eginkizuna.

Horregatik guztiagatik, Arabako Foru Aldundiaren Foru Gobernu Kontseiluak herritar guztiak gonbidatzen ditu, batez ere Arabako Lurralde Historikoko emakume guztiak, martxoaren 8an Emakumeen Nazioarteko Eguneko ospakizunak direla-eta izango diren era bateko eta besteko ekitaldietan parte har dezaten, emakume guztien eskubideen eta berdintasunaren alde.

Considerar el término “refugiado” como un término neutro desprotege a las mujeres para poder optar a la condición de refugiada y al derecho de asilo. Resulta fundamental que dicha condición se interprete con perspectiva de género.

La vulnerabilidad de mujeres, niñas y niños en sus procesos de huida se manifiesta en sus diferentes fases: en los países de origen, de tránsito y de destino. En muchas ocasiones el origen de los desplazamientos forzados radica en la explotación y persecución por razón de género, incluida la trata con fines de explotación sexual o laboral, violaciones, malos tratos, matrimonios obligados, mutilación genital, etc.

Las vulneraciones de los Derechos de las mujeres no cesan aun cuando se les concede el estatuto de refugiadas. Se enfrentan a una serie de retos de integración específicos y sufren una discriminación múltiple e intersectorial basada en una serie de factores entre los que se incluye el sexo, la identidad sexual y el origen étnico minoritario. Esto las expone a un riesgo aún mayor de exclusión social, violencia y pobreza.

Álava es un territorio comprometido con la acogida y protección que garanticen la igualdad de derechos de las mujeres y niñas y el acceso a los servicios públicos. Este es el deber de los gobiernos, de las instituciones y de toda la sociedad.

Por todo ello, el Consejo de Gobierno Foral de la Diputación Foral de Álava invita a la ciudadanía, y de manera muy especial a las mujeres del Territorio Histórico de Álava, a participar activamente, en favor de la igualdad y en favor de los Derechos de todas las mujeres en los diferentes actos que se lleven a cabo con motivo de la celebración del 8 de marzo, Día Internacional de las Mujeres.

Gasteiz, 2017ko martxoaren 7a

Vitoria-Gasteiz, 7 de marzo de 2017